

Jose Ramon Etxebarria, zientzialari itzultzailea

GAI-JARTZAILEA: KARLOS DEL OLMO

Jose Ramon Etxebarria hainbat euskal plaza zapal dutako pertsona da, lagun ezaguna hainbat alorretan. Irakaskuntzan, Euskal Herriko Unibertsitatean, Udako Euskal Unibertsitatean eta zenbait talde eta mintegitan zientzia euskaraz lantzen eta irakasten eginiko bidegatik. Euskal hedabideetan, euskara batuaren hasieretan zientziaren ingurukoak aditzera emateko jorratutako dibulgazio artikuluetatik. Politikagintzan eta gizarte mugimenduetan, hainbat arduralepoan hartu dituelako. Kulturgintzan, bertsolaritza, liburugintza eta beste zenbait lantegi esku artean erabili dituelako. Eta beste ezin konta ahala gehiago. Dena dela, horiez guztiez gain, Etxebarriak gogotik landu ditu aldizkari honen ardurako alor bi ere: itzulpen gintza eta zuzenketa. Eta horiek sakontzen ahaleginduko gara hurrengo lerrootan.

DEL OLMO: Duela gutxi, dokumentatzeko asmoz, *Argia* aldizkarian egin zizuten elka-

rrizketa irakurri nuen. Hartan gauza asko eta asko aipagai, baina zure lan-jardunean, ibilbide luze horretan, justu-justu agertzen ez zen puntu bat zen niri interesatzen zitzaidana, eta hauxe da: zer dela-eta itzultzen hastea? Bestela esanda, noiz hasi zinen itzultzen itzulpen kontzientzia zenuela?

ETXEBARRIA: Nire ustez, itzulpena, zientziaren arloan eta jakintzaren arloan, sorkuntzaren osagarria da; biak behar dira. Gu testu teknikoak eta irakaskuntzarako testuak egiten hasi ginenean, nik lehenengo defenditzen nuen erabat sorkuntzazko testuak izatea; baina arrazoi simple batengatik: beheko mailetan ez dagoelako arazorik. Nik idazten nituen fisikako testu oinarrizkoak, eta horiek edozein fisikarik oso ondo menperatzen dituen gaiak dira; beraz, gai horiek nik menperatzen nituen erabat, ez ziren gai berriak, gai ezagunak ziren, ondo estudiatutakoak; beraz, azken batean, testu didaktiko batean egiten duzuna da azalpen bat

ematea, eta azalpenezko testuak infinituak dira. Pertsona bakoitzak bere estiloa dauka, azaltzen du nahi duen bezala, bere didaktikarekin, bere ideiekin eta listo. Beraz, hori erraza da. Horretaz kontziente nintzen, baina jokamolde hori maila bateraino baino ez da funtsezkoa. Alegia, maila baterako, nire ustez, hobe da irakaskuntzarako testuak eta horrelako testuak sorkuntzazkoak izatea, originalak izatea; beno, originalak zertan? Originala da azalpena bakarrik. Kontzeptua ezaguna da, mundu guztiak daki zer den, ni horretan espezialista naiz; beraz, gaia, printzipioz, menperatzen dut. Hori da gauza bat. Baina gero, jada zientzian gora joaterakoan, batez ere unibertsitatean, beste hau izan zen nire lehenengo kezka: askotan guk ez ditugu sortzen kontzeptuak; beste irakasle batzuek edo beste ikertzaile batzuek sortzen dituzte kontzeptu berriak. Eta orduan, kontzeptu berriak itzuli egin behar dira hizkuntza guztietan, zeren Nobel sariduna bat baino ez da, baina gero haren testuak mundu guztira zabaltzen dira. Klasikoak horiek dira; klasikoak zer dira, ba? Testu eder batzuk, hizkuntzaren batean sortu direnak eta, hain zuzen ere, gauza eder bat asmatu delako, beste hizkuntzetara pasatu behar direnak; pasatzea merezi dutenak. Zergatik? Gaia bera interesgarria delako eta askotan berria, zeure hizkuntzan ez daukazu gauza bat. Orduan, itzulpena oso kreatibo da, nire ustez, sorkuntza-lana da, baina beste modu batera. Zuk gauza berriak esan behar dituzu inoiz esan ez diren hizkuntza batean. Hor, sorkuntza ez da kontzeptua bera, sorkuntza da nola asmatzen dudan nik neure hizkuntzan beste hizkuntza batean sortu den gauza interesgarri bat esateko modua.

Hori da kontua. Eta esaten didatenean “klasikoak bere hizkuntza originalean landu behar dira”. Bai, eta Txinakoak edo ez dakit nongoak ere bai? Badakizu, ala? Klasikoak dira, hain zuzen ere, hizkuntza batetik bestera pasatzea merezi dutenak, eta askotan itzultzailea oso sortzaile handia da, zeren eremu berriak landu behar ditu. Horixe zen nire problema. Nire problema zen: bai, ondo dago, nik erlatibitate-teoria estudiatu dut, nahiko ondo, horretaz irakasle izan naiz eta kontzeptuak landu ditut. Baina nahi badut Einsteinen artikulua originala den bezala ikasleei eman, edo niretzat eduki, nik alemana ez dakit; hori da lehenengo problema. Bertsio batzuk ikusi ditut, frantsesezkoak, ingelesezkoak, gaztelaniazkoak, horiek ezagutzen ditut; eta euskaraz zergatik ez daukagu geure bertsioa? Originala, badakigu, alemanez dago. Eta konturatu nintzen horrelako gaietan itzultzailea ez zela itzultzaile profesionala, itzultzailea zela aditu bat gai horretan, baina egin nahi zuena beste irakasle handiago baten lana ekarri bere hizkuntzara. Eta oso itzultzaile onak direla, nire ustez, teknikoki oso onak direlako. Problema bat daukate niri interesatzen zaizkidan testuek: gaian aditua izan behar duzula, eta edonork ezin dituela itzuli. Itzultzaileek mila baliabide daukate, bai, baina agian falta zaie kontzeptuaren beraren benetako ulermena, eta hori adituak dauka. Orduan itzultzaile naiz, ez dut esango kasualitatez, premiaz baizik: behar nituen testu originalak; beraz, itzuli egin ditut. Zer egin dudan? Estudiatu kontzeptua ondo, gaia ondo, beste hizkuntza batzuetan ere, eta gero joan testu originalen bertsio horietara, eta horietatik sortu, euskaraz, testu egokie-

na horretarako, ahalik eta errespetutsuena sortzailearekin, ahalik eta literalena: nire gaia ez da literatura egitea, literaturak beste elementu batzuk dauzka. Teknikoa badirudi “aseptikoa” dela; ez da egia, zeren Einsteinen hitzaldietan mila kontzeptu arrunt daude, eta horiek ere beren grazia daukate. Bada, horixe egin dut. Einstein aipatu dut, baina beste zientzialari handien lanak ere itzuli ditut: Heisenbergenak, Gouldenak... Bakoitzak eskatu dit dokumentatzea, gaiari buruz ikastea, eta gero sortzea, ahalik eta errespetutsuena harekin. Beraz, nik ez dakit zer itzultzaile klase naizen, baina, izatekotan, testu klase horiena. Hori da bat. Hori izan da, nire ustez, inportanteena niretzat. Horrez aparte, beste testu batzuk itzuli ditut, baina askoz ere libertate handiagorekin; esate baterako, bizitzaren zirkunstantziengatik eskatu didate batxilerreko fisikako eta matematikako testuak itzultzea. Hori niretzat oso erraza da, zeren gai hori ondo menperatzen dut. Orduan, hor egin dut neure egokitzapena; ez hainbeste itzulpena, egokitzapena baino, zeren sortu dut nahi izan dudana bezala, errespetatuz testu originala, zer esanik ez, baina horko esamoldeak ezagutzen ditut euskaraz, horretan nabilelako lanean, trebatuta nagoelako urteen poderioz. Besteek (klasikoek) eman didate neke gehiago, zeren besteak ziren gauza berri bat, errespetatu nahian sorkuntzaren momentua; baina sorkuntza beste batek egin du nire aurretik.

Nire ustez, itzulpena funtsezkoa da, hizkuntza guzientzat. Zergatik? Eremu berriak irekitzen direlako. Zeren, hori esatean, euskaraz inoiz esan ez diren gauzak esaten ditut. Hori oso inportantea da, nire ustez. Beraz,

nola hasi nintzen? Kasualitatez, gai horiekin zaletuta. Gero, beti izan da baten bat zerbait itzultzea eskatu didana. Nik itzultzen nituen neuretzat, ikasleei materialak emateko, baina derrepente etorri zitzaidan, esate baterako, Gaiak argialetxea: “Itzuliko zenuke hau?”. Eurek ere ez dira niregana etorri ni itzultzailea naizelako; hori ulertzen dut nik, behintzat. Edo orain Klasikoetatik etorri zaizkidanean: “Itzuliko zenuke hau?”, hori niretzat apustu bat da. Zergatik etorri dira niregana? Badakitelako euskaraz idazten badakidala, horrelako gaietan maila batean edo bestean aditua naizela, eta orduan suposatzen dute inork egitekotan nik egin dezakidala itzulpen/egokitzapen egoki bat; hori suposatzen dut, horrela interpretatzen dut, eta niretzat erronka bat da, baina oso pozik hartzen dudana.

DEL OLMO: Ibilbide horretan, oso deigarria iruditu zitzaidan aipatutako elkarrizketa hartan esaten zenuela autoalfabetatze-prozesu bat egin behar izan zenuela, bizkaieraduna izanda. Handik itzulpeneko jauzia, zelakoa izan zen?

ETXEBARRIA: Itzulpeneko jauzia eman nuenerako, nire ustez, ondo alfabetaturik nongoen. Nire autoalfabetatze-prozesua oso gazterik izan zen. Nik bizkaiera nekien, bizkaiera entzuten nuen etxean, eta garai hartan besterik ez neukan inguruan. Hasieran kostatu egiten zitzaidan beste euskalkietakoekin hitz egitea; beno, garai hartan guztioi, gaur egunean erraza da, kontuz. Orduan, nik, 17-18 urte ingururekin erabaki nuen egitea, hain zuzen ere ezinean sentitzen nintzelako egiteko nahi nuena; eta esan nuen: “lehenengo euskara landu behar

duzu”. Etxeko euskararekin ez neukan tre-beziarik horretarako. Lehenengo premia, alfabetatzea. Nola? Zegoen materialarekin. Zer material zegoen orduan? Batez ere *Anaitasuna* aldizkaria eta *Zeruko Argia*; batez ere bi horiek. Gero, liburu batzuk, baina oso gutxi. Aldizkari horiek bai, zeren hor jada prozesu bat zegoen arautze-kontuetan; izan ere, euskararen batasuna orduan sortu zen. Hirurogeita lauan egin zen, oker ez banago, Baionako idazleen deklarazioa, eta gero 68an, Arantzakoa. Ni 48koa naiz, ni hasi nintzen autoalfabetatzen 65-66 inguruan; garai hartan ingeniari-tza-eskola honetan nengoen ikasten. Orduan, ziur, hori izan zen 65-66 ikasturtean. Bertako ikasle lagun batek galdera bat egin zidan, mintu eta kezkatu ninduen, galdera inozente bat, eta nik ere inozente erantzun nuen, baina ukitu egin ninduen, eta hortik, aurrera! Poliki-poliki, pazientziarekin, irakurri eta irakurri. Ni alfabetatu nintzen irakurtzen eta imitatzen. Irakurtzen zer idazten zuten orduko idazleek, nola idazten zuten, zer ortografia erabiltzen zuten, nola egiten zituzten esamoldeak eta formak, horrela alfabetatu nintzen, besterik gabe. Gero, *Anaitasunan* idatzi nuen lehenengo artikulua; ni orduan nengoen erlatibitatearen teoria estudiantzen, nire kabuz; edukiko nituen 22-23 urte, hor inguruan. Eta jada sentitzen nintzen alfabetaturik. Eta gogoratzen naiz idatzi nuela artikulua, erlatibitatearen teoriak. Gainera, anekdota polita daukat horretaz. *Anaitasuna* irakurtzen nuen nik hasi eta bukararaino, osorik, ikasteko. Beste metodorik ez zegoen, 1970-71 urte inguruan. Ni Bilbon bizi nintzen, hemen, nire osaba-izeko batzuen etxean, ingeniari-tza estudiantzen

nengoen, eta hor nengoen, zezen-plazaren alboan. Etxeko hizkuntza bakarra euskara zen, bizkaitarra. Osaba eta izeko bat Nabarnizkoak ziren, eta beste izeko bat Errigoitiakoa; eta ni gernikarra. Orduan, zer euskara klase? Hangoa erabiltzen nuen, besterik ez. Baina jada banengoen alfabetaturik. Eta han alboan zegoen frantziskotarren komentua. Eta han zegoen pertsonaia bat, nire maisu izan dena autoalfabetatzean: Imanol Berriatua. Imanol Berriatua zen itzultzaile, idazle eta zuzentzailea. Nik eduki dudan zuzentzailerik onena. Nik ez nuen ezagutzen, baina nire aitaren laguna zen, ezaguna familia; Elantxobekoa, eta nire aitaren edadekoa; fraidea, frantziskotarra. Orduan nik zer egin nuen? Xabier Kintanak idatzi zuen *Anaitasunan* artikulua bat ezizen batekin, oker ez banago, Patxi Urteaga edo Urtiaga. Eta egin zuen gauza bat ni zirikatatu edo motibatu ninduen. Idatzi zuen artikulua bat esanez erlatibitate-teoria hor dagoela, lau dimentsioez hitz egiten duela, eta euskarazko aditzean ere lau dimentsio daudela, alegia lau subjektu egon daitezkeela: nork, zer edo nor, nori, eta nori hitz egiten diozun. Lau dimentsio. Nik irakurri nuen artikulua eta esan nuen: “aiba, hauxe da nirea”. Eta horrek motibatu ninduen erlatibitatearen teoriari buruz idazteko, azalduz lau dimentsioak zer ziren fisikan. Ez ahaztu *Anaitasuna* zela informazio orokorreko aldizkari bat. Orduan, idatzi nuen artikulua, txukun, alfabetaturik bainengoen, eta besterik gabe joan nintzen *Anaitasunara*, zeren irakurtzen nuenez, banekien hantxe zegoela Imanol Berriatua, eta eman nion artikulua, ea interesantea zen. Imanolek irakurri zuen, esan zuen: “Oso interesantea. Zuzenketa

batzuk egin behar dira, baina...”, eta hasi zen zuzentzen hantxe, komentuarien harre-
ra-gelan, eta esan zuen: “Bale, hau argita-
ratu egingo dugu”. Nire sorpresa izan zen
hurrengo *Anaitasunan* portadan agertu zela
nire artikulua. Geratu nintzen zuri. Bai-
na horrek motibatu egin ninduen; Imanol
Berriatuak esan baitzidan ondo idazten nue-
la, beno, faltatxo batzuk neuzkala, zuzendu
egin behar zela... Niretzat hori fenomeno
zegoen; horrela, ikasi egingo nuen. Eta Ima-
nol Berriatuak eta biok egin genuen tratu
bat. Esan zidan: “Idatzi behar dituzu beste-
lako artikulua batzuk”. Nik jada buruan neu-
kan dibulgazio zientifikoa egin behar nuela,
euskaraz. “Bale, nik idatziko ditut dibulgazio
zientifikozko artikulua, baina zuk zuzendu
egingo didazu aurrez aurre”. Eta orduan nik
egiten nuen idatzi artikulua, joaten nintzen
komentuko harrera-gelara, Imanol bajatzen
zen hara eta han bertan zuzentzen zidan arti-
kulua. Inoiz bere gelara ere joaten nintzen,
komentu barrura, zeren han zeuzkan hizte-
giak, esplikatzeke zergatik zen arazo bakoit-
za, eta zuzenketa guztiak esplikatzen zizki-
dan. Horrela ikasi nuen nik. Horregatik, nik
zuzentzen dudanean baldintza ipintzen dut:
zuzendua dena aurrez aurre egon behar da.
Bestela ez dut zuzentzen. Gaur bertan egon
da nirekin irakasle bat, testu batekin; “hau
nahi dut zuzentzea”, “bale, conforme, bai-
na nik zuzentzea nahi baduzu, nire aurrean
egon behar duzu”. Zeren bestela ez du balio
zuzenketa. Zuzendua zaren momentuan
esan behar dizute “hau honengatik da”,
eta zuzentzaileak konbentzitu egin behar
zaitu. Konbentzitzen baduzu bestea, listo.
Eta Imanol Berriatuak hori egin zidan niri;
hortaz, bera izan da nik izan dudana maisu-

rik onena. Beraz, lehenengo fasea izan zen
autoalfabetatzea, eta bigarren fasean eduki
nuen luxuzko maisu bat, Imanol Berria-
tua. Garai hartan, bera bazebilen “euskara
batua” aplikatzen, eta hark dena esplikatzen
zidan. Horrela ikasi nuen. Jada trebakuntza
horrekin, hamabostean behin egiten nuen
artikulu bat, zientziazkoa. Eta hori bazen
sorkuntza-lana, jada, ez zen itzulpena. Nik
irakurtzen nituen *Sciences et Avenir*, *Scien-
ces et Vie* eta horrelako frantsesezko arti-
kulu zientifikoak, gaur egungo *Elhuyarren*
antzekoak, baina goragoko mailakoak; fran-
tsesak, batez ere, zeren nik frantsesa ondo
dakit. Gai interesgarri bat hartzen nuenean,
zer egiten nuen? Nola gaia ulertzen nuen
oso ondo, zientziako nire gauza bat baitzen,
lehenik egiten nuen ideiarenean digestioa neure
barruan; horregatik guztiz itzulpena ez zen,
baina itzulpena ere bazen, zeren lehenik
digeritzen nuen artikulua eta gero sortzen
nuen euskaraz. Horrela eremu berri bat lor-
tzen nuen, zeren artikuluan esaten nituen
euskaraz inork esan gabeko gauzak. Azken
batean, egiten nuen itzulpen gisako bat, bai-
na guztiz libre; ez zen hitzez hitzezko kon-
tua. Eta nik uste dut hori oso inportantea
zela, zeren orduan testuak nola libreak ziren,
askoz ere euskarazkoagoak ziren; ez neukan
erdararen menpekotasun hori. Nik egiten
nuen digeritu neure barruan, eta sortu itzul-
pen kontzeptuala. Kalko bat, nahi baduzu,
baina kalko kontzeptuala egiten nuen eus-
kararekin. Gero hori eramaten nion Ima-
noli eta Imanolek ipintzen zidan oraindik
euskarago. Berak irakurtzen zuen eta esaten
zuen: “kontxo, hau ondo dago, zeren nik ez
daukat ideiarik ere horretaz, baina euskaraz
esan didazu eta ulertu dut”.

Niri bi kontzeptu horiek buruan sartu zizkidana aita izan zen; bai euskaltzalea-suna —oso euskaltzalea zen eta euskaraz oso ondo hitz egiten zuen—, eta bigarren gauza zientzia-zaletasuna izan zen. Bera teknikaria zen, oso teknikari ona, eta zientzia gustatzen zitzaion. Orduan nik aitari esplikatzen nizkion euskaraz idazten nituen artikuluak, eta gure aitak perfektu ulertzen zituen, euskara hutsean, bizkaieraz, noski. Ez zeukan problemarik. Orduan esaten nuen: “aiba, aitak ulertzen badu, ondo dago. Imanol Berriatuak nire aitak baino oraindik ideia askoz gutxiago dauka teknikari buruz, eta Imanol Berriatuak ulertzen duela esaten badit, aurrera”. Horrela hasi nintzen. Holan, ba, trebakuntza-prozesu bat izan da. Baina berriro diot: ni ez naiz kontsideratu itzultzaile, adiera klasikoa. Zergatik? Libre ibili naizelako; nahi izan dudana idatzi dut, salbu enkarguzko gauzetan. Zientziazko gaietan egin dudana sinplea izan da: digeritu gaia, euskaraz pentsatu eta esplikazioa atera. Hori beti da librea, zeren itzulpenean errespetatu egin behar da originala, baina zuk azalpena ematen baduzu, zeure estilora egiten duzu. Orduan, gozoago ateratzen da testua; horixe uste dut nik, behintzat. Baina, hala eta guztiz ere, gozoagoa izan arren, eremu berria denez, eremu berria lantzen duzu. Nik ez dakit, teoria bat ematen dizut, zer uste dudana nik itzulpenari buruz.

DEL OLMO: Horixe da helburua, gainera.

ETXEBARRIA: Epoka horretan, eduki nuen zorte handia, generazio oso jator batean txertatu nintzen; zeren, *Anaitasunan*, ni baino pixka bat zaharrago ziren idazle asko ezagutu nituen, eta haiekin asko ikasi nuen.

Lehenengo zegoen Anjel Zelaieta (“Txikito”), baina gero Gabriel Aresti ere han zegoen, Xabier Kintana, Xabier Mendiguren eta beste batzuk. Nik harreman oso estua izan nuen Xabier Mendiguren Bereziarturekin, Kontseilukoarekin, eta Xabier Kintanarekin. Eta hirurok adiskidetasun handia izan genuen, eta horiekin ere asko ikasi nuen. Xabier Mendigurenekin, esate baterako, asko ikasi nuen testuak egiten. Zergatik? *Saioka* ikasliburuen prozesua sortu zenean, testu berriak ziren, eta Xabier Mendigurenek eta biok egin nahi genituen Euskal Herri osorako testuak; eta euskara egokitzen ibili ginenak gu izan ginen, sortzeaz aparte. Ideiak sortzeaz talde bat arduratzen zen, bakoitzak idazten zuen nahi zuena, baina gero euskararen batasun hori ematen genionak Xabier Mendiguren eta biok ginen, biok batera. Garai hartan, Xabier Mendiguren Algortan bizi zen. Eta ni gogoratzen naiz, lehenengo *Saioka* liburuetan, udan, jada azkenengo idazketak egiten genituenean, egunero joaten nintzela Algortara, beraren etxera, eta bertan hiztegi handiekin ibiltzen ginen hitzez hitz *Saioka* zuzentzen, dena, testu guztiak bion artean. Eta saiatzen ginen: “batasunerako zein hitz da egokiena? Hau. Hemen asmatu egin behar dugu; zein hitz ipiniko dugu? Hauxe”. Xabier Mendigurenekin. Orduan, han egin genuen baita itzulpen moduko lan bat ere.

Eta gero, gogoratzen naiz, data ez dakit (hori Xabier Kintanak jakingo du ziurrenik), Euskal Herriko lehenengo itzultzaile-ikastaroa antolatu genuela, oker ez banago; hirurok egin genuen, Arrasaten, 1975 edo 1976an. Egin genuen ikastaro informal bat Arrasateko eskola politekniko hartan.

Xabier Mendigurenek gehiago jardun zuen itzulpen literarioari buruz, Xabier Kintanak ez dakit teoria edo zeri buruz, eta ni itzulpen teknikoak egiten hasi nintzen. Horretan ofizialki estudiantu gabeak ginen, baina geure esperientzia kontatzen genuen. Esate baterako, itzulpen teknikoan, horrelako esaldi luzeak agertzen zirenean, nik beti esaten nuen: lehenengo, esaldiaren “eskeletoa” egin. Kentzen nituen gauza sekundario guztiak, itzultzen nuen euskarara, eta gero ipintzen nizkion osagarriak. Oso gauza sinplea. Eta ikastaro bat eman genuen. Ikasle asko etorri ziren; datu hori nahi baduzu, galdetu; seguru Xabier Kintanak badakie-la, seguru Xabier Mendigurenek badakie-la; nik ez dakit. Baina egin dudala, bai, eta horiekin biekin. Hirurok irakasle ginen; harreman ona geneukan, esperientzia handia geneukan. Xabier Kintanarekin gero ere egon ginen Saiokan, batera, Saiokako testuak egiten; berak egiten zituen zuzenketak, batez ere gizarte-arloko testuenak, eta nik natur arlokoenak. Xabier Mendigurenekin, berdin; beraz, esperientzia bageneukan horretan hirurok; adiskidetasuna ere bai, nire lagunak dira gaur egun ere, noski; oso ondo konpontzen ginen, eta hor sortzen horrelako taldetxo bat. Nik zorte handia izan nuen. Ni baino pixka bat zaharrago dira horiek. Esperientzia handiagokoak ziren, baina zientziaren arloan herren, eta orduan ni sartzen nintzen parte horretan. Oso esperientzia ona. Horrela ikasi nuen. Autodidakta izan naiz. Praktikan. Nik ez dut inoiz pentsatu “itzultzaile profesionala izango naiz, ikasiko dut teknika”. Hori Xabier Mendigurenek landu zuen gehiago. Xabier izan zen, oker ez banago, lehenengo

eskola “serioa” sortu zuena; gurea ere izan zen serioa, noski, baina izan zen astebeteko ikastaroa edo aste bikoa. Baina beste horren hazia izan zen. Hortik, nire ustez, Xabier Mendigurenek sortu zuen gero Martutenekoa. Baina, ordurako, Xabier Donostiara joan zen bizitzera, eta ni hemen geratu nintzen, Bilbon; mantentzen dugu harremana eta dena, baina berak beste bide bat hartu du eta nik unibertsitateko lana. Nik itzuli dudana beti izan da gehiago nire lanarekin loturikoa.

DEL OLMO: Prestatuta nituen galderetako batzuk erantzunda daude dagoeneko. Horrelako kontuak dira nik zugandik nahi ditudanak, gero belaunaldi berriak horren berri izateko; hau da, jendeak garai batean zelan bizi izan zuen itzulpenenerako sarrera edo jauzi hori. Esaterako, Bizkaian askotan pasa izan dena, bizkaieraren eta batuaren arteko aldea sentitzea, zenbateraino izan da hori zuretzat ere itzulpen-ariketa?

ETXEBARRIA: Natural-natural etorri da. Natural etorri da jarrera irekia geneukalako guk. *Anaitasunak* apustu garbia egin zuen euskara batuaren alde; gure maisua izan zen Imanol Berriatua, nire ustez, elementu funtsezkoa izan zen euskara batuan. Nik beti esaten dut kontu bera. Bai, Mitxelenak egin zuen ponentzia, bale; baina han hartzen ziren erabakiak benetan gizarteratu zitue-na *Anaitasunako* zuzentzailea zen, Imanol Berriatua. Gizarteratuz eta irakatsiz; guri berak irakatsi zigun. Beraz, nik bereizi egiten ditut pertsonaiak. Villasante inportantea izan zen; zergatik? Jakintsua izateaz gain, pertsona lasaia zelako eta guztiakin lortzen zuelako akordio-posibilitate hori. Mitxelena

garrantzitsua izan zen prestigio handia zeukalako, lehenengo ponentzia egin zuelako eta konfiantza zuelako proposamenarekin berarekin. Batasunaren kutxa izan zenean, Mitxelenaen “promesaren pean” egin zen, eta hori jartzen du azalean, Kintanak eta Arestik idatzitako liburu hartan. Haiek ziren maisuak, zaharragoak, eta gero gu ginen gazteak. Dena irakurtzen genuen; ateratzen zuten guztia, hitzaldietara eta denetara joaten ginen, ikasteko; Villasanteren liburu guztiak, dena. Baina orduan Bizkaian egon zen erresistentziarik handiena eta ekimen indartsuena. Batetik, euskara batuaren alde gogorren jokatu genuenok Bizkaikoak izan ginen. Bestetik, hemen bazeuden Arenaza eta beste batzuk, aurkari gogorrak; gero Arenaza nire lagun handia izan da, politikan ere bai, baina garai hartan itsututa zegoen h letrarekin. Guretzat horrek ez zeukan inolako arazorik. Eta nik idatzi ere egin nituen bi edo hiru artikulu *Anaitasunan* (*Anaitasunaren* barruan, lehenengo partean, zientziaren dibulgazioa egin nuen, batez ere; hori denbora guztian; gero, beste fase batean, horrez gain, gramatika eta euskara hobea egiteko artikulu laburrak idazten nituen). Gure tesi nagusia zen bizkaitarrek arazorik ez genuela; eztabaida guztietan defenditzen genuen hori. Euskara batuaren kontrakoei esaten zuten “euskara batuak hil egingo du bizkaiera”, eta nik esaten nien: “Inolako arazorik ez daukat. Lehenengo printzipioa: euskara batua ez da bizkaieraren kontra edo bizkaiera ez da euskara batuaren kontra”. Eta idatzi nituen artikuluak titulu honekin, dena esplikatzeko: “Bizkaiera ere euskara batua da”. Nire logikan, bizkaiera ere euskara batua zen, zeren bizkaiera, lehenengo

eta behin euskara zen. Eta gero, zer alde zegoen bizkaieratik euskara batura? Forma. Aiba! Baina ez dago topatzerik bi pertsona guztiz berdin ahoskatzen dutenak hitz bat! Orduan, benetan balio duena da hitz egiten duzuna; hori ateratzen da. Eta gero, ikasten dena beti da artifiziala, transkripzioarako arau bat da, eta orduan idazten duzu modu batera edo bestera. Zer ardura dizu horrek? Bizkaiera, beraz, euskara batua da, beste ahoskera batekin, beste intonazio batekin; eta hori ez da kenduko inoiz. Horrek ematen dio grazia, intonazioak; gainera, beste mila faktore daude, hizkuntza mintzatuan. Eta idatzian, zer gertatzen da? “Barria” idatzi beharrean, “berria” idatzi behar dugu; eta zer ardura dio? Biak euskara dira, eta kontua da zer forma ipiniko dugun artifizialki arau modura. Bada, berdin da. Eta esaten zuten “Bizkaiko hitzak galduko dira”, eta nik esaten nien: “Ez, ez, Bizkaiko hitz guztiak, guzti-guztiak, euskara dira; beraz, euskara batua dira. Beste kontu bat da, nola idazten diren”. Hortaz, hitzetan, bat ere ez du galduko bizkaierak. Bigarren gauza: esamoldeak. Guk diferente egiten ditugu gauzak, ordena eta abar. Dena da euskara batua. Hori da gure estiloa. Aditza. Aditza, bale, konforme; bada nik ere defenditzen nuen beste posibilitatea, ez “dizut”, baizik eta “dautzut”-edo, Ipar Euskal Herrikoa. Baina logika bera du, berdin-berdin ulertzen da; eta zer da Bizkaian, “tzut”, “dotsut”, “deutsut”... zer demontre da? Niri berdin dit; hitz egiten nabilela kontrakzioztat hartzen dut eta kito. Orduan, esatea “deutsut”, “dotsut”, “tsut” edo “tzut”, berdin da. Baten bat ipini beharko da. Beno, erabaki zen hori. Ez zen izan nire gustukoa, baina besteentzat ez zen

izango nirea. Beraz, erabaki behar da, akordio bat dago. Niretzat benetan inportantea zena zen euskara batua prozesu bat zela, baina prozesu estrategiko bat euskara biziala ez bizitzekoa. Eta nik argi neukan euskara bizitzeko, bere tamainarekin eta gauzekin, metodorik onena zela Euskal Herri osoa hartzea unitate modura. Horixe neukan argi. Baina nire planteamendua ez zen baztertzaila, baizik eta integratzailea; dena da euskara batua. Hori zen gure eztabaida; orduan, nik sufritu? Ezer ez. Nik esaten nien denei: “Gainera, gauza berriak ikasiko dituzu eta zurea ere aberastuko duzu. Zuk zer nahi duzu, bakarrik zeurea? Eta orduan, bestearen ñabardura, bestearen sinonimoa baztertuko duzu? Ikasi! Hobeto!”. Hori zen nire logika, eta hori da nire logika orain ere. Garai hartan eztabaida oso gogorak izan genituen eta guk hitzaldiak ematen genituen, baina kontrakoek ere bai, eta gure kontra, gogoratzen naiz, bereziki Kintana, Mendiguren eta nire kontra izugarriko astakeriak esan zirela. Belarri batetik sartu eta bestetik irten; ez entzunarena egiten genuen. Zeren fundamenturik edo arrazoi sendorik gabeko gauzekin, ez haserretzea da onena. Eta holaxe da. Hori beste garai bat izan zen, baina pasatu da.

DEL OLMO: Nik leituta daukat lehenengo apunteak-eta euskaraz jartzen hasi zinela ere. Hori ere itzulpen-ariketa ote?

ETXEBARRIA: Irakasle hasi nintzenerako, lehenengo momentutik euskaltzaletuta nengoen, alfabetaturik nengoen, idazlea nintzen (nire mailakoa, pretentsio handirik gabekoa), baina ni ez nengoen kezkatuta, sekula ez zitzaidan pasatu burutik nobe-

la bat edo poesia idaztea, nik horretarako ez dut balio, edo uste dut ez dudala balio; ez da ezer pasatzen. Eta, gogoratzen naiz, euskal idazleen elkarteko lagun batek beti esaten zidan “apuntatu behar duzu, idazle zara eta”. “Ni ez naiz idazlea, ni beste gauza bat naiz”. Idatzi dut inork baino gehiago, beharbada, kantitatez, baina ez da izan polit idazteko. Ni saiatzen naiz zehatz idazten, eta polita bada, hobeto; estetika oso inportantea da, zer esanik ez. Hasi nintzen oso gazterik unibertsitatean, 23 urterekin hasi nintzen irakasle, beste garai batzuk ziren, eta ez zegoen materialik, liburuak erdaraz zeuden. Bada, nik neuk erabaki nuen, niretzat, nola jada zaletuta nengoen, nik klasera eramane behar nituen apunte guztiak euskaraz idatzita eramango nituela. Apunteak ez dira testu konplikatuegiak, igual dira eskematikoak, baina poliki-poliki joan nintzen apunte batzuk idazten, eta horrela sortu ziren lehenengo liburuak, Udako Euskal Unibertsitaterako, nahiz eta ofizialki klaseak erdaraz izan. Emango dizut datu bat: ni lanean hasi nintzen 71n, 23 urterekin. Lehenengo liburua ez dakit noiz idatziko nuen; liburu txikiak lehenago, 73an edo idatzi nituen liburu batzuk ikastoletarako eta horrela. Baina unibertsitatekoak, nik apunteak beti euskaraz idazten nituen, beti. Unibertsitatean ez dut erdarazko apunterik idatzi. Eta joan nintzen fintzen, poliki-poliki, urterik urte, eskuz; orduan ez zegoen ordenagailurik, ez ezer ez. Horrela, 75erako edo, baneuzkan apunte dezenteak. Eta hor hasi nintzen jada makinaz pasatzen, eta UEUko lehenengo liburuak, ez dakit, 77an edo aterako nituen, jada, fisika orokorreko lehenengo liburuak. Zertarako erabiltzen

nituen horiek? Ni jada konturatuta nengoen ikasle asko euskaldunak zirela, eta irakasle batzuk ere bai. Eta orduan, gure artean trukatatu egiten genuen materiala. Eta nire erdarazko taldeko ikasleei, nahi zutenei, ematen nizkien neure apunteen fotokopiak, nahi bazuten euskaraz ikasteko. Eta beti egoten ziren nahi zutenak, noski, txollo bat zen eurentzat irakaslearen apunteak edukitzea; baina ez erdaraz, euskaraz baizik. Eta hartzen zituzten apunteak; nire letra oso garbia zen, eta ikasleak gustura. Gerotxoago, 73an UEU sortu zen, eta horrek bultzada ikaragarria eman zigun euskararen trebezia aldetik, zeren jada hasi ginen Donostiako taldekoak eta Leioako taldekoak terminologia konpartitzen, eztabaidatzen elkarrekin eta lan komunak egiten.

Nik ezagutu nituen Elhuyarrekoak 72an edo; haiek ere Donostiako ingeniari-tza-eskolan zeuden, batzuk ikasle, batzuk irakasle; eta orduan, Euskal Kultura Taldeak zeuden (EKT). Eta guk sortu genuen Leioan ZEKT: Zientzietako Euskal Kultura Taldea. ZEKTkoak Leioan eta EKTkoak Donostian hasi ginen harremanetan. Garai hartan biltzen ginen, bai Mikel Zalbide, Andoni Sagarna, Luis Mari Bandrés, hil berria dena, Bilboko Jazinto Iturbe, Joxe Mari Txurruka eta beste batzuk biltzen ginen eztabaidatzeko, terminologia bateratzeko eta berdin antzera lan egiteko; jada bage-neukan batasunaren zentzua. Alfabetaturik geunden, eta hasi ginen argitaratzen lanak, bai, Elhuyarren, eta gero UEU zen biltzeko tokia, mintegiak egiteko, eztabaidatzeko eta batasuna egiteko gure artean. Oso esperientzia ederra. Donostiako EKTkoak ezagutu nituen, uste dut, 71n edo 72an; egin nuen

liburu txikitxo bat, ikastolen liburutegirako, eurekin batera. “Haizeak, euria eta klima”, berrogei bat orrikoa edo, umeentzat. Hor-tik sortu zen prozesu bat, adiskidetasuna, lankidetasuna eta horrela. UEUk erabaki zuenean liburuak argitaratzea, behartu egin gintuen testuak oraindik gehiago lantzeraz. Zeren orduan jada makinaz idatzi behar genituen, gero argitaratzeko, lehenengo fotokopietan, (...), irudiak eskuz eginda denak, lan ikaragarria zen hori, baina lan oso polita (...). Orduan, poliki-poliki hasi ginen unibertsiteteetan (ofizialki ez, extra-ofizialki), mintegiak antolatzen. Klaseak erdaraz ziren denak. Mintegiak euskaraz egiten nituen; nahi zuten ikasleek hartzen zituzten nire apunteak, eta horrez gain, astean behin, mintegi praktikoa bat antolatzen nuen, eta fisika esplikatzeko nien, problemak edo edozer gauza, euskara hutsez. Ikusi genuen horrek funtzionatzen zuela bi edo hiru urtetan, ez nik bakarrik, berdin egiten genuen matematikan, biologian eta horrela, eta justu datorren hilean, martxoaren 5ean, Leioako campusean egingo da ospakizun bat ospatzeko 30 urte bete direla euskal lerroak hasi zirela zientzia-fakultatean, ofizialki, 79-80 ikasturtean. Ordurako, jada, prest neuzkan testuak, prest neukan terminologia, zeren urte horretan egin genuen UZEIko fisika-hiztegia. Nire lana gehiago izan zen fisika-hiztegia egitea, ni ez nintzen kezkatzen literaturaz-eta, ez baitzen nire arloa (...). Hori izan da gure historia. Eta gero, batez ere, testugintza izan da nire kezka; ez da izan hainbeste beste kontu hori. Galdera da: testugintza sorkuntza da ala itzulpena da? Nire kasuan dakidanari buruzko azalpena ematea da. Beraz, horretan, sorkuntza da. Irakaslea

beti da testu-sortzaile; sorkuntza da, ez da itzulpena. Egokitzapena da itzulpena baino areago; eta hori beste gauza bat da.

DEL OLMO: Ba ote duzu buruan itzultzen ari zinelako kontzientziar egindako lehenengo lana?

ETXEBARRIA: Lan txikiak igual bai, testu batzuk edo. Baina ez, lehenengo lana, begiratu beharko nuke nire curriculumean. Ez dakit zein zen (...). Hauxe da lehenengoa, begira, Leonardo Da Vinci. Eta nola egin nuen lehenengoa? Enkarguz. Ingeniaritza-eskolan betetzen ziren 100 urte eskola egin zenetik. Hemengo irakasle bat, erretoreordea edo zuzendariordea zen euskaltzale bat: Andoni Iriondo. Bertsozale, euskaltzale eta nire laguna, ingeniaria; duela zenbait urte hil zen, nahikoa gazterik. Hark atera nahi zuen liburu bat, Leonardo Da Vinciren mekanismoei buruzko liburu bat. Oso gutxi idatzi da horretaz. Talde bat egin zen hemen eskolan, irakasleen artean, eta ideia izan zen: gutariko bakoitzak hartuko du mekanismo bat eta idatziko du komentario tekniko bat horri buruz. Horretarako, lortu genituen Madrileko Kodizeko dokumentuak, eta baimena haiek erabiltzeko. Lehen eskuko materiala, italieraz idatzia, gaztelaniazko itzulpenarekin; eta horrela informazio ona geneukan. Baina gero, gauza batzuk, irudia ikusita guretzat ebidenteak dira. Sarritan nik ez dut behar testurik mekanismo batek zelan funtzionatzen duen jakiteko. Mekanismoa ikusten dut eta: “honek honela funtzionatzen du; argi dago”. Orduan irakasle bakoitzak egin zuen komentario bat mekanismo bati buruz. Hasi aurretik, Andoni Iriondok deitu zidan; laguna zen, oso lagun

ona: “Beitu, Jose Ramon, ideia hau sortu zaigu: nahi dugu, Leonardo Da Vinciri buruzko mekanismoak gaia hartuta, liburu bat idatzi, mendeurrenerako. Baina nik nahi dut, erdaraz egiten bada, euskaraz ere egitea”. Hori guztia 1997an izan zen. Eta esan nion “bale, ondo”. Ni ingeniaria nintzenez, nik ere hartu nituen mekanismo batzuk nik komentatzeko. Klaro, nik komentarioa euskaraz egin nuen, eta gero itzulpena erdarara. Orduan, behar zen pertsona bat ingeniaria zena, ingeniaritzako mekanismoei buruz ulertzen zuena, euskaraz zekiena eta erdaraz ere bazekiena, noski. Eta badirudi hori neu nintzela, kasualitatez. Orduan Iñaki Iriondok pentsatu zuen “hau egitekotan, Jose Ramonek egingo du”. Eta deitu zidan. Proiektua ikusi nuenean, esan nuen: “oso polita, nik ere parte hartuko dut”. Hamar bat irakasleren artean egin genuen, bakoitzak zati bat, zoragarri polita da. Eta, ikusten duzunez, hau jada itzulpena da. “Gauza bera esaten duzu euskaraz ala erdaraz?” Nik beti esaten diet: “Truko bat esango dizuet. Begiratu bi zutabeak eta begiratu zer okupatzen duten euskaraz eta erdaraz. Eta ikusiko duzu berdina ez bada, oso antzekoa dela”.

DEL OLMO: Oso normala ez den gauza bat, ez? Euskaraz beti motzago ateratzen da.

ETXEBARRIA: Bada, begira. Nik, horretan, taka. Horrek esan nahi du nahiko zorrotz jokatu nuela. Hau latza izan zen niretzat, zeren dena zen berria. Eta gero ipini nuen terminologia hemen atzean. Terminologia ere zaindu behar zen, oso teknikoa da. Hau izan zen nire lehenengo itzultze-lan serioa; 97an. Jada baneuzkan ia 50 urte. Orduan, idazten oso trebatuta nengoen; itzultzen

ez, baina nola menperatzen nituen, neurri batean, bai gaia eta bai euskara, ausartu egin nintzen. Apustu bat izan zen niretzat. Emaitzarekin oso pozik geratu nintzen, hemengo irakasleak ere oso pozik geratu ziren, eta benetan harro nago lan horretaz; oso lan polita. Hori egin nuenean, Gaiak elkartekoak konturatu ziren, eta esan zuten: “Klasikoak itzultzen ari gara; egingo al zenuke itzulpenen bat?”. Klasikoak dira fisikako idazle inportanteenak; egin dituzte lan inportante batzuk dibulgaziorako edo. Heisenbergen lan bat zegoen, ziurgabetasun printzipioari buruz. Mekanika kuantikoa ez badakizu, hori zoramena da, esaten duzu “hau tipo hau zoraturata dago!”. Zeren hori ez da erraz ulertzen. Baina nik beti esaten dut: guk, normalean, burua fisika klasikoak ulertzeko daukagu egokituta. Bada, fisika klasikoaren logikarekin, ezinezkoa da fisika kuantikoa ulertzea; aldatu egin behar da txipa. Klaro, fisikaria ez bazara, ezin duzu hori egin. Logika diferentea da. Nola itzuliko dituzu zure logika ez daukaten esaldiak? Orain logika hori zeureganatuta badaukazu, ez dago problemarik (esateko modu bat da). Orduan, itzuli nuen Heisenbergen lan hori. Nonbait hori ere gustatu zitzaien nola egin nuen, zeren gero beste liburu bat enkargatu baitzidaten; eta oso konplikatuak izan zen, baina oso polita. Garai hartan munduan zegoen zientzia-dibulgatzaile handienetako batena zen: Stephen Jay Gould. Biologiari buruzko gaietan ari zen: DNAr eta horrelako gauzei buruz. Gainera kariño handiz itzuli nuen; eta titulua ere, begira zer egin nuen. Titulua ere libertate osoz ipini nion, keinu bat eginez euskarazko testu bati, itzulpen bati. Esplikatuko dizut: Aldous

Huxleyren *Bai mundu berria* ezaguna nuen, Amurizak itzulia. Amurizak euskal sena dauka; hori gauza ziurra da. Eta *Bai mundu berria* titulua ipini zion. Eta nik pentsatu nuen: “zergatik ‘bai mundu berria’?”. Ingeleseko titulua nola zen? Gaztelaniazkoa *Un mundo feliz*. *Bai mundu berria* ez da itzulpena, baina zergatik? *Un mundo feliz* zelako poesia batekoa edo ez dakit zer, eta berak hartu zuen Iparragirrereren bertso bate-tik: “bai mundu berria, oraintxe bai naizela / errukigarria...”. Eta, omenaldi txikitxo bat eginez liburu zoragarri hura itzultzen ausartu zenari, Xabier Amurizari, nik ipini nuen *Bai bizi zoragarria*. Ingelesean zen “*Wonderful life*” edo horrelakoren bat. Nik ez nuen itzuli modu horretan. Esan nuen, ez, Amurizak horrela egin du. Ikusteko hor zer edo zer gehixeago dagoela. Liburu oso polita izan zen, bi tomotan atera zena. Klasiko bat da. Hortaz, nik itzulitako denak klasikoak dira; klasikoak ez den bakarra da Da Vincirena, baina beraren lanean oinarritua. Besteak klasikoak izan ziren: Heisenberg, Gould (...). Gero, zer gehiago itzuli dudan, ikusteko denak horrelakoak direla, Shapiroren liburu oso berezi bat, fisika baino areago, ingeniaritzakoa. *Forma eta fluxua* du izena. Hau ez nuen nik enkarguz itzuli. Hau izan zen bi irakaslek, Josu Igartua fisikariak eta Igor Urresti ingeniariak nahi zuten itzuli liburu hori, oso ondo azaltzen zituelako aerodinamikako gauza batzuk. Hasi ziren, eta mila problema. Eta orduan nire laguntza eskatu zuten. Halan, ba, beste bi lagun horiekin batera itzuli eta egokitu nuen pixka bat, nahikoa latza baitzen. Beste bat ere itzuli nuen, oso arraroa, lagun bik eskatu zidatena, *Marko logikoaren enfokea*;

hau oso gauza konplikatua da. Dena den, gehien maite ditudan itzulpenak azkenengo bi liburuak dira. Bat Einsteinen dibulgazio-lana, zeren Einsteinek dibulgazioa egin zuen, liburu pedagogiko batzuk egin zituen, erlatibitatearen teoria esplikatzeko. Hori izango zen dibulgazioaren prestigiorako, zeren Einsteinek idatzi zituen; hartaz gehien zekienak idatzi zuen. Eta bestea ikerkuntzerna (...).

Liburu horiek enkarguak izan dira; Klasiakoak sailekoek eskatu zizkidaten. Behar zituzten itzuli Einsteinen testu originalak. Niretzat hori plazera izan da. Ni horretara dedikatu naiz unibertsitatean; beraz, gaia ondo ezagutzen nuen; baina originala itzultzea... kontuz. Beno, nik alemana ez dakit, baina landu ditut hiru bertso; izan ere bai ingelesezko itzulpena, bai gaztelaniazkoa (bi itzulpen oso desberdin), bai frantsesezkoa eduki ditut eskuetan. Hiru hizkuntza horiek ondo dakizkit; ingeles teknikoak, ondo, nahiz hitz egiteko ingelesa gutxien dakidana izan; frantsesa ondo dakit, eta gaztelania, zer esanik ez. Orduan, bertsoak ikusita, kontzeptua jakinda, neure bertsoa egin dut, baina jatorrizko testua eta kontzeptuak ahalik eta gehien errespetatuz. Itzulpena da? Bai, zeren saiatu naiz ahalik eta zehatzena egiten, ahalik eta literalena. Baina, aldi berean, ahalik eta gozoena. Niri gustatuko litzaidake iritzi kritikoa ematea itzulpen horiei buruz, bi liburu horiei buruz, zeren horiek dira jada heldutasunezko fruituak. Horiek egin ditut xehetasun guztiez kontziente.

Baina liburu hauek daukate zailtasun bat: normalean kritika literarioa egiten dutenei oso zaila egingo zaie horko testua. Ez euskara aldetik, euskara aldetik seguru

asko euskara gozoa da; nire ustez, oso gozoa da. Baina problema dago edukian. Begira zelako esaldiak diren; baina korritu egiten dute. Nik horretan errespetatu dut Einstein, ez dut egin tranparik. Lagun batzuek esan zidaten: “esaldia luzea da? ba, ipini bi zatitan”. Eta nik: “Ez, ez. Einsteinek ipini badu esaldi batean, nik esaldi batean ezarriko dut”. Unitatea hori da, Einsteinek berak aukeratuta, ez nik. Esfortzu handia izan da, baina, aldi berean, gozada bat (...). Bigarren liburua lehenengoa baino zailagoa da. Ez da didaktikoa, baina hala eta guztiz ederra da. Eta da 1905eko *Annus Mirabilis* hartan idatzi zituen artikuluen bilduma; originalak osorik. Normalean inoiz ez zaie ematen material hori ikasleei; nik nahiago dut hori ematea, originala; hausnarketak hortik ateratzea. Horrez gain, berak emandako hitzaldi batzuk ere badaude. Hori itzultzea gozada bat izan da. Aukera eman didate hori egiteko, eta egin dut. Hori da itzuli dudana. Printzipioz, ez daukat asmorik gehiago itzultzeko; orain beste lan pila bat badaukat. Nire bizitzako zirkunstantziak oso tormentosoak izan dira batzuetan, kalean egonda eta hola, eta hori izan zen egin nezakeen gauza bat, nahiz eta kalean egon. Kalean egoten nintzen egun osoan, baina gero etxera joaten nintzenez egiten nuen itzulpena. Eta hori zen niretzat arnasa hartzeko modu bat. Dokumentatu ondo, irakurri ondo, pentsatu ondo, presa barik. Urtebeteko epea edo ez dakit zenbatekoa eman zidaten, baina lana antolatu eta erraz bete nuen; hori ez zen problema, ez nintzen egon itota. Egin nuen denbora hartuta. Ez gehiago, ez gutxiago, behar zena baino. Amaitzen nuenean, listo. Itzultzailea? Bai,

banaiz itzultzailea, itzuli dut, seguru asko ni baino gutxiago itzuli duten itzultzaile asko egongo dira; baina ez naiz horretara dedikatu. Deditu naiz zirkunstantzia horiengatik. Baina, berriro esaten dut, seguru asko, itzultzaile normal batek hori ezingo luke egin, nahiz eta ni baino askoz hobea izan, itzulpen-teknikak hobeto menperatu, abildade handiagoa eduki, erreferentziak... berdin da. Baina hau beste gauza bat da.

Orduan, liburu guztietatik, kenduta lagun batzuentzat egin nuen *Marko logikoaren enfokoa* (proiektuen planifikaziorako eskuliburu txiki bat izan zena), hori kenduta, besteak oso-oso teknikoak izan dira; baina klasikoak, hizkuntza guztietan egotea merezi dutenak.

DEL OLMO: Horrekiko lotura egiteko, itzulpengintzak emandako une goxoren bat?

ETXEBARRIA: Azkenengoa izan da gozoena. Ikusi ditudanean azkenengo bi itzulpenak eskuetan, plazer handia hartu dut. Ikusi, eta esan dut “begira, Jose Ramon, zer edo zer egin duzu”. Apreziatua izango den, hori ez dakit. Baina egunen batean baten batek irakurtzen badu, eta “honek zer edo zer egin zuen hemen” esaten badu, jada, pozik nago. Bi liburu horiek ez dira edonorentzat, badakit, kontziente naiz horretaz. Baina orain corpusak eta lantzen direla, linguistikan eta, hor dago materiala; gainera dena digitalizatuta dago, kontsultagai dago, nahi baduzu pikatu, hortxe hartzen duzu informazioa, hor terminologia pila bat dago; euskarari bide berri asko zabaldu zaizkio, gauza berriak esan baitituz. Nik uste gehiena ondo dagoela; beti hobeto egin daitezke, baina ni

ase nauen lana da. Ez dakit hobeto egiten; horrela dakit egiten, gehiago ez dakit. Egin dut ahalik eta ondoen. Nik uste dut bada-goela eredu linguistiko bat, erredakziokoa, batez ere liburu hauek konplikatua direlako; esaldi konplikatua dauzkate, baina garbiak. Nik miresten ditut horrelakoak egiten dituztenak. Gaur egunean idazle batzuk gehiago gustatzen zaizkit beste batzuk baino, guztioi bezala. Irakurtzen dut literatura, baina testu batek ur garbia bezala korritzen duenean, eta irakurri ahala ulertuz eta gozotuz zoazenean, hori ondo idatzita dago. Ni saiatu naiz, galdu barik zehaztasuna, nik neuk irakurri eta berrirakurri ditut, zuzentzeko, ez dakit zenbat aldiz. Eta gozotasunez irakurri arte, ez nuen etsitzen. Niretzat, gozo zegoen. Gustatuko litzaidake baten batek aztertzea seriozki zer iritzi daukan itzulitako testuei buruz, azken bie buruz, Einsteini buruz. Baina hori asko eskatzea da. Baten batek pentsatzea “honek zelan itzuli du hau?” Eta baten batek esaten badu “esaldi hau zer gozo, zer ondo dagoen, eta zer argi dagoen kontzeptua”; horrekin superpozik egongo nintzateke.

DEL OLMO: Erronka botata dago, jaso egingo dugu orriotan.

ETXEBARRIA: Oxala, ea itzulpen-lanetan dabilen batek hartzen duen hori. Begira ditzala originalak, beste bertsioak. Nik irakurri ditut Espainiako testuetan itzulpenak egin dituzten irakasleak; ezagutzen ditut, eta apreziatzen ditut, asko. Lan ondo egina apreziatzen dut. Eta beti esaten dut, eta ez da harrokeria puntu bat: “kontxo, gureak hauenak baino txarragoak al dira?”, eta ez nago badirenik, ez hobeak direnik ere; aldre-

bes ere esaten dut. Askotan, unibertsitatean, euskarazko irakasleek problema (topiko) bat eduki dugu: hasieran esaten zuten “euskaraz, irakasle txarragoak dira”; eta nik esaten diet beti: ni izan naiz erdarazko irakaslea ere unibertsitatean, erdaraz ere eman ditut nik klase berberak eta azterketa berberak. Eta erdaraz eman ditudanean, ez nintzen besteak baino txarragoa, eta hori esaten zuten denek. Nik euskara erdara baino hobeto egiten dut, hobeto menperatzen ditut matizazioak euskaraz erdaraz baino, ñabardurak hobeto egiten ditut, eta konturatzen naiz horretaz. Erdara oso ondo dakit, baina zehaztapenak hobeto egiten ditut euskaraz. Orduan, erdaraz besteak baino txarrago izan ez banaiz, euskaraz seguru asko ez naiz izango txarragoa. Hori da nire logika. Konbentzitzen zaitudan ez dakit, nik horrela pentsatzen dut. Nik ez ditut besteak mesprezatzen. Hori da beste gauza bat ulertzen ez dudana. Askotan uste dut mesprezatzen gaituztela ulertzen ez gaituztelako. Nik ulertzen ditut eurak, baina ez ditut inola ere mesprezatzen. Euretako batzuek euskara gorroto dute; nik ez dut gaztelania gorrotatzen, inolako hizkuntzarik ez dut gorrotatzen, eta nahi dut gaztelania ondo egin. Ez naiz saiatzen gaztelania txar-to egiten; egitekotan, ondo egiten saiatzen naiz. Eta gainera, pozik nago gaztelania ere badakidalako, zeren tresna gehigarri bat baitut. Nik uste itzultzaile batek errespetua izan behar duela beste hizkuntzarekiko eta egin behar dituela biak ondo; horregatik ahal dut itzuli, ondo dakizkidalako bi hizkuntzak. Nik ez daukat problemarik testuak beste hizkuntzan irakurtzeko, baina neur-rean ipini nahi ditut; baina, horretarako, beste hizkuntza ere menperatu behar dut.

Orduan, nahi nuke beste batek ikustea eta kritikatzeara, eta esatea benetan balio duen ala ez; lasai, ez naiz haserretzen, ikasi dut kritikak hartzen, eta normalean kritika egiten didatenean hurrengoan hobeto egiten dut. Baina kritika egin behar da; ea norbait ausartzen den.

DEL OLMO: Orain, kontrako bidetik, itzulpena dela-eta bizi izandako une garratzen bat, zailen bat? Itzultzeko orduan esatea “hemendik ez daukat irtenbiderik” edo?

ETXEBARRIA: Egia esanda, ez. Egia esanda, kostatu zaizkit gauzak, baina nola ez naizen egon agobiaturik itzultzeko; esan nahi dut, nik ez dut egin erlojuaren aurkako itzulpenik. Nire liburuak itzuli ditudanean, astia izan dut, denbora hartu dut, behar beste. Orduan, batzuetan ondo ez, baina bigarren bueltan edo hirugarrenean, eta igual gauza batzuk utzi ditut benetan gustura geratu gabe, baina, beno, beste batek egin dezala! Ez, ez, benetan, ez dut eduki unerik esanez “desesperaturik nago, ezin dut itzuli eta itzuli behar dut biharko”. Presarik eduki ez dudanez.

DEL OLMO: Imanolek zurekin egiten zuen moduan, zuk ere zuzentzaile-lanetan jardun izan duzu.

ETXEBARRIA: Asko.

DEL OLMO: Eta horren gainean, zer duzu gainerako?

ETXEBARRIA: Oso esperientzia ona. Hori ere asko ikasteko modua izan da. Badakizu, horretan zuzentzaileak txollo bat dauka. Ekartzen dizkirate testuak, zuzendu behar

ditut. Horretan bai, inoiz desesperatu naiz; zuzentze-lanetan bai, behin baino gehiagotan desesperatu naiz. Eta nik uste dut lanen batean edo bestean esan dudala “hau ez dut zuzenduko, ezin dut, zeren desesperatu egingo naiz”. Baina askotan heldu zaizkit testu onak. Nik zuzendu ez, orraztu behar ditut. Testu batzuk, bai, zuzendu ditut. Baina batzuetan desesperatu naiz; hor bai; batez ere, benetan zuzendu behar izan ditudanean, berridatzi behar izan ditudanean. Hori ez dut nahi. “Begira, eman beste bati, nik ezin dut, desesperatu egingo naiz”. Eta baldintza bat ipintzen izan dut, beti, zuzentzaile ibili naizenean: testu bat ematen zidatenean, UEUrako liburuak zuzentzeko adibidez, lehenengo, hartzen nuen lagin bat; hartzen nituen 5-10 orri, leku desberdinetakoak, eta neure gustura zuzentzen nituen. Gero, egileari deitzen nion: “orain etorri zu”; baldintza bat zen, bestela ez nuen zuzentzen. Etortzen zen egilea nire aurrera, eta esaten nion: “begira, nahi baduzu nik zuzentzea, nik hau zuzenduko dizut”. Eta esplikatzeko nion, hau, hau eta hau. “Konforme zaude?” “Bai”. “Gauzatxo bat esango dizut: onartzen baduzu nire kriterioa, nik zuzenduko dizut, ez dizut ezer inposatuko, esplikatu egingo dizut dena”. Baina nola zuzentzen dudan gustatzen ez bazaizu, ez dago problemarik; nik ez dizut zuzenduko. Akordioa behar nuen egilearekin; berak onartu behar zuen nik zuzentzea. Bestela, kalbario bat da hori eztabaidatzen egotea. “Hori txarto dago”, “baina nik hola nahi dut”, “a, orduan ez dut ipiniko, ez daukat gogorik”; akordio bat behar da zuzenduarekin. Hori, lehenengo printzipioa. Bigarren printzipioa, aurrez aurre esatea, ez kartaz. Gustatzen zait zure-

kin nagoen bezala esplikazioa ematea. Gaur, esate baterako, irakasle bat etorri da lan batekin, eta esan diot: “batera jarriko gara; hemen ordenagailua, kontsultarako”. Niri Imanolek egiten zidan bezala; Imanolek horrelaxe egiten zidan niri. Hori ikasi dut harengandik; nire maisua izan da. Maisua ez da irakaslea, irakaslea baino gehiago da, beste maila bat da. Imanol, irakaslea izateaz gainera, maisua zen. Bai, zuzentzen sufritu egin dut. Itzultzen ez, zeren itzultzean neure kontra ari nintzen. Neure buruarekin erraz konpontzen nintzen. Baina beste bat konbentzitu behar eta ezina, hori ez. Hori parte negatiboa, metodologiagatik. Eta bigarren gauza inportantea: lan asko zuzentzen, gozatu egin dut. Ondo idatzita dagoen lan bat ez da zuzentzen, orraztu egiten da. Nik beti esaten diet: “nik ez dut ezer egin; nik bakarririk egin dut: zuk ilea daukazu, altxatu zara eta egon zara ile bat honantz, bestea harantz, eta ni joan naiz pelukeroa bezala, apaintzen. Zuk egindakoa forma goxoagoa ematen”. Zertan? Bada, gaur goizean, esate baterako, esaldiak orekatzen. Oso inportantea da esaldi bat orekatzea ondo komunikatzeko; ez eskema zurrun batean, baizik eta ikusi esaldi osoa eta esatea “hau aldrebes ipintzen badut, edo aditza hemen aldatzen badut, ez duzu ikusten gozago dela?”. Hori, gozatzen, orrazten, txukuntzen. Zeren, normalean, jendeak badaki idazten; beno, euskara badaiki, baina zehatz eta gozo idazten ez. Euskara badaiki, idaztea beste gauza bat da. Izan daiteke hizlari oso ona baina idazle eskasa. Ortografiako gauzek ez daukate problemarik, automatikoki egin daitezke; orduan, zer zuzendu behar da? Nire ustez, zuzendu behar da, justu, makinak egin ezin deza-

keena. Xuxenek zuzentzen ez duena, hori da inportantea; beste guztia automatikoa da. Eta orduan, jada, jokutzen duzu zeure senarekin. Nik, edadeagatik edo, asko ikusi dut, asko irakurri dut, eta generazio diferentekin egon naiz bizitzen, estilo diferenteak entzun ditut. Orduan, badaukat nire gustu bat eginda, logika bat, gozotasun bat zer den testu batean. Baina, hori, azken batean, neu naiz, nire erreflexua da. Hala ere, badu zer edo zer objektiboa. Eta, nire ustez, inportantea da. Gramatika zaindu behar da, zer esanik ez, hori ebidentea da: gramatika ez bada, ez da euskara, beste gauza bat da. Baina eman ditzagun gramatika-arau guztiak, deklinazio-atzizkiak ondo ipinita, ergatiboa bere lekuan, komunztadura guztiak ondo; hori esan gabe doa. Gero zer? Gero oreka dago, testuaren oreka, koherentzia; diskurtsoa ur garbia izatea, erreka garbi bat izatea bezala, korritzea. Eta hori nola esplikatzen da? Horixe da nire komentarioa; ni, zuzentzen dudanean, horren bila noa. Eta hori esaten diot besteari: “begira zer erraza, ipiniko dut hau hemen eta hau hemen; koma hau kenduko dut eta hemen ipiniko dut. Orain, irakurri. Zein dago hobeto, zuk idatzi duzuna ala nik idatzi dudana?”. Horixe izan da, horrelako zuzenketak, zeren, ortografia faltarik ez badaukate, orduan zer zuzenduko diet? Hori nola ikasten den? Beno, gero, parte bat teknika hutsa da: ortotipografia, ortografia, puntuazioa, funtsezkoa: jendeak ez daki puntuatzen! Eta hori nola ikasten da? Liburu zoragarri bat daukat nik etxean, ingeniari batek idatzitakoa espainolez, gaztelaniari buruzkoa, ez zen ez akademiakoa ez ezer, baina logika bazeukan. Zein liburu ederra! Nola ipini behar diren puntuak,

puntu eta komak. Hori oso inportantea da, eta jendeak ez daki. Hori zuzentzaileak edo orraztaileak egiten du.

DEL OLMO: Gauza subjektiboagoa: zuk euskal itzulpengintzaren gainean daukazu ezagupenetik, zelan ikusten duzu, zer alde on eta txar, zer hutsune? Zientzialaria zaren aldetik ere, zer igartzen duzu?

ETXEBARRIA: Nik uste dut hor ere oreka behar dela. Beharrezkoa da sorkuntza literarioa, kreaioa, beharrezkoak dira azalpenezko testuak, eta gauza onak ondo itzuli behar dira. Gauza berriak itzuli egin behar dira. Klasikoak itzuli behar dira. Oreka behar da. Eta ondo itzuli behar da. Gauzak ondo egin behar dira; eta nola egiten dira ondo? Prozesu bat da. Orain lehen baino askoz hobeto egiten ditugu gauzak, esperientzia dugulako, beste bizipen batzuk ditugulako, ikasi dugulako. Nire ustez, azken batean, erabilera da klabea. Batetik, orain dela 30 urte baino mila bider hobeto gaude, prestakuntza aldetik: ikasi dugu teoria, asko idatzi eta irakurri dugu, praktika handia eduki dugu, tresnak dauzkagu, mila gauza on dauzkagu, baina, bestetik, ez dakigu hori jendeari gizarteratzen, motibatzen, erabiltzen; badaude batzuk oso ondo erabiltzen dutenak; baina beste asko daude –eta hori frakaso totala da–, bizitza osoan euskara ikasten, eta ez dute ikasi, eta ez dute ikasi nahi, eta hautua egiten dute erdararen alde. Hori da terriblea niretzat. Horrek kezkatzen nau. Pasatzen dena: hau da Euskal Herria eta momentu honetan, problema hori dago, bizirik gaudelako. Bizirik gaudelako da problema. Borroka badago, terriblea, eta etorkizuna jokutzen ari da etengabe; orduan, ez dago ezer ziur-

tatuta. Dena den, gaztelaniak ere ez dauka ziurtatuta etorkizuna; guk baino gehiago, igual, bai, baina ez dauka, geroari begira. Orduan, borroka hori nire kezka nagusia da: bai, euskara ona egin behar da, baina euskara egin egin behar da. Inportanteena egitea da, erabiltzea; zeren, euskara egitean, erabiltzean, fintzen zoaz, behar dugulako. Problema hauxe da: behar ez baduzu, ez duzu zertan findu. Orduan gazi-geza da nire sentsazioa. Bizitzan egin dudana, oso pozik nago, baina ez da nahikoa; hizkuntza ez da nirea, hizkuntza kolektiboa da, kolektibo bat behar da; eta nire ustez, horixe da problema. Kolektibo hori oso korapilatsua da, eta interes asko dauzka, gizartea den modukoa da, mundua den modukoa da, baina euskara beti bizirik dago. Euskara beti dago hiltzen, baina beti bizirik. Eta bizirik dagoelako dago aldatzen. Aspaldian, hasi nintzenez terminologiarekin, esaten zidaten: “zuk dena asmatu egiten duzu”. Nik arrazoi erraza eman nien; esan nien: “bada, zorionekoa ni, asmatzen dakidana; seinale bizirik nagoen”. Zeren hizkuntza guztiek eskubidea daukate asmatzeko; ala zer, zuk ukatuko didazu niri asmatzeko eskubidea? Ni bizirik nago; gure kolektiboak asmatu nahi badu, asmatuko du, eta erabiltzen badu, aurrera joango da asmakizuna. Euskara bizia hori da. Bizirik dagoena aldatzen, aldatzen, aldatzen ari da. Bestela ez dago bizirik. Bizirik gaude. Bi kontzeptu inportante esplikatzen dizkiet ikasleei: ikasteko gaitasuna daukagun neurrian eta aldatzeko gaitasuna daukagun neurrian, bizirik gaude. Eta aldatzeko gaitasunik ez badaukagu, ez ikasteko gaitasunik ez badaukagu, hilda gaude; intelektualki eta fisikoki. Hori horrela da. Orduan, guk alda-

tzeko gaitasuna dugunez... Konturatzen zara zer eboluzioa izan duen euskarak azkeneko 30 urteotan? Ikaragarria! Bizirik dago. Zenbat garen? Hori beste problema bat da. Nik nahi baino gutxiago. Zenbatek erabiltzen dugun? Askok bai. Euskaltzale oso fin batzuk daude, eta bizirik eta landuta daukate euskara. Pasatzen dena, euskaldun erdal-tzaleak ere badaudela. Hori da problema. Euskara ikasi eta gero erabili ez. Nik esaten diet: “Zertarako kontxo nahi duzue euskara? Nik hizkuntza bat ikasten dudanean, erabiltzeko da”. Hori da kontua. Horixe da nire kezka. Itzulpengintza, nik uste, ikaragarri aurreratu da. Nik ikusita dauzkat testu klasikoen antzinako itzulpen batzuk, eta agian euskara nik baino askoz gehiago jakingo zuten, gerraostean eta egindako batzuk; bada, itzulpen batzuk onak dira, baina beste batzuk oso murrizak, edukiari eta literal-tasunari buruz. Nire ustez, teknikan ikaragarri aurreratu da; itzulpengintzarako kapazitatea ikaragarria da gaur egun. Itzultzaile onak daude; bistakoa da, nik irakurri ditut liburu batzuk itzulitakoak eta ederrak dira, gozoak, ondo itzulita daude. Eta itzultzaile asko dago. Gero itzultzaile-eskola ere bada; beraz, eskolatik pasatzen denak zer edo zer ikasiko du. Guk ezer barik abiatu ginen. Baina gure eskola bizitza izan da. Azkenean, nik beti esaten dut: irakasleak ez du ezer irakasten. Ikasleak ikasten du. Nik irakasle txarrak ere eduki ditut, baina asko ikasi dut, haiekin ere. Haien ezinaren gaintetik. Intereza eduki dudalako, arduratu naizelako eta haien akatsak saihestu nahi izan ditudalako. Guk ez dugu eduki irakaskuntza arautua, bale. Autodidaktak izan gara, oro har, eta guk baino gehiago zekitenei begiratzen ikasi

genuen. Gure irakasleak ez dira izan eskolan izan direnak; gure albotik pasatu diren pertsona batzuk izan dira, asko zekitenak, eta guk haiengandik ikasi dugu. Beti behar izan dugu nor gidatu. Nire ustez, asko aurreratu da horretan. Berdin, idazle oso onak daude euskaraz gaur egun, beste hizkuntzetako mailakoak, eta batzuk hobeak; eskasagoak ere bai, normala denez. Baina ez txarragoak, berez edo nahitaez. Dena den, euskara beraren egoera da kezkarria. Ez teknikoki ez dakigula; guk edozer gauza esan ahal dugu. Bai, ahal dugu, hori frogatu dugu. Baina biziko ote gara? Ez dakit; momentuz, bai. Hor borroka bat dago, eta borroka euskararen erabileran dago, noski. Gu saiatzeko gara motibatzen jendea, ez hainbeste bakarrik ikasteko, baizik eta erabiltzeko ere. Artzek esan zuen esaldi famatu hura egia santua da. Hori poetak ikusi zuen oso argi, eta formulatu zuen esaldi biribil batekin, eta gogoratze modukoa da. Arrazoia zeukan, horixe da kontua; poetek askotan arrazoia dute. Beno, horixe da problema; hori da nire kezka. Ez hainbeste itzulpenen kalitatea, zeren, oro har, horretaz ez daukat kezkarik. Egongo dira txapuzeroak, baina argitaratzen diren lanak oso ondo eginak dira, oro har; ezagutzen ditut eta badakit ondo egiten dutela; hor ez dago zeresanik. Bestelakoa da kezka. Gero, itzulpena beti egongo da. Kontaktua dagoenean –eta kontakturik gabe ez dago ezer–, kontaktua aprobetxatu egin behar da, garatzeko. Hori da.

DEL OLMO: Erdi erantzunda dagoen arren orain galdetuko dizudana, zure itzulpenetan Jose Ramon Etxebarriaren zer edo zer gelditzen dela uste duzu?

ETXEBARRIA: Klaro!

DEL OLMO: Hau da, Einsteinen liburuetan, zer dago, Einstein...

ETXEBARRIA: Eta nire pasioa! Zer egongo da, bada? Nik hor ipini dut daukadan gutia.

DEL OLMO: Eta zure estiloa ezagutuko du baten batek, liburu hori hartuta?

ETXEBARRIA: Nik uste dut baietz, zeren nire lanak irakurri dituenak... Pertsona bakarra naiz, osorik naiz bat, naizen modukoa. Orduan, euskaraz nabilenean idazten, neuk idazten dut; espeziala naiz, guztiak bezala, normala denez. Horrelakoa naiz, eta neure esateko moduak dauzkat; eta estiloa daukat, nirea dena. Identifika daiteke? Horretan fijatzen denak egingo duela uste dut. Itzultzen dudanean edo idazten dudanean edo klasea ematen dudanean, neure pasioa ipintzen dut horretan, neure afizioa, neure izateko modua eta dena; orduan, zer edo zer geratuko da. Orain, hori besteentzat baliagarria den? Hori beste kontu bat da. Hori ez dut galdetu ere egiten. Esperantza dut, edo konfiantza dut, zer edo zer eragingo dudala; eragin nahi dudalako, noski. Hori argi dago. Baina hori pertsona guztiok egiten dugu. Lehen aipatu dut gure aita, eta gure aitak eta amak beti itsatsi dizkigute gauza batzuk. Nik suertea eduki nuen horretan, amak gauza eder batzuk, harremani buruzkoak, irakatsi zizkidan, asko; baina aitak erakutsi zidana izan zen zehaztasuna, gauzak, ahal dela, ondo egitea, eta jakituriarekiko pasio pixka bat edukitzea. Orduan, itzulpen bat egiten duzu, zuri gustatzen zaizun gauza

bati buruzkoa. Pasatu nahi duzu zuk maite duzun hizkuntzara. Gustuko gauzak egiten dituzu. Zeure burua estimatzen duzu, gainera. Hortik hasten da kontua. Eta, ahal dela, nola egingo duzu txarto? Ahal dela, ahalik eta ondoen egingo duzu; bestela, ez egin. Zeren, idatzita finkatuta geratzen da betiko. Liburu bat idazten denean, ateratzen denean, jadanik ez dauka erremedio-rik, zeure parte bat hantxe dago, zeuk egin duzulako; zeure sorkuntza bat egin duzu. Ez da dena originala, ez; bestearengandik ikasi duzu eta hori egokitu egin duzu; baina egokitzea ez da erraza. Eta ahalik eta zehatzen egiten baduzu eta ahalik eta dotoreen egiten baduzu, hobeto. Beno, horrela ahalegintzen naiz. Lortzen dudan? Hori beste kontu bat da. Baina ahalegina egin dut, seguru.

DEL OLMO: Horri lotuta, askotan aipatzen duzu aitaren kontua. Itzultzen duzunean, esaterako azkenengo liburuetan, hartzaile-motaren bat izaten duzu buruan? Askotan, idazleek “nik idazten dut halako irakurle-mota buruan daukadala” esaten dute. Zuk zer edo nor daukazu?

ETXEBARRIA: Nik uste dut pertsonak ez garela hain diferenteak. Ni saiatzen naiz; nire gusturako idazten badut, pertsona arraroa naizenik uste ez dudanez, pertsona normala baino, besteek ere antzeko gustuak izango dituztela uste dut. Orduan, esaldi-ekin, esamoldeekin, estiloarekin gustura geratu banaiz, konfiantza dut, ziurtasunik ez, ezen, seguru asko, nik disfrutatu badut, ni gustura geratu banaiz, besteek ez dutela hain txarto hartuko. Baina hori uste hutsa da. Ez daukat argumenturik hori ziurtatzeko. Baina gustura egiten dut; hori bai, hori

segurua da. Esate baterako, irakaslea naiz, eta beti esaten dut: klase batean disfrutatzen dudanean, zaila izango da besteek ez disfrutatzea; zeren sentipen hori kutsatu egiten da. Ikusten duzu, ni fijatzen naiz, jada zaharra naiz, esperientzia dut horretan, eta, hizketan nagoenean, begiratu egiten ditut ikasle-eren erreakzioak, denbora daukat horretarako. Nola ez nauen obsesionatzen gaiak, gaia ondo prestatuta eramaten dudanez, aurkezpena inprobisatu egiten dut ikasgelan. Eske ma bat daukat, ideiak badauzkat, eta gero, datorrena datorrela, inprobisatu egiten dut, bat-batean. Baina menperatzen dituzun gaietan, ziurtasun minimo bat daukazu edozer datorrela onik irtengo zarela, goitik ez bada behetik, edo albotik. Eta, orduan, lasaitasun mental hori daukadanez, posibilitatea dut begiratzeko jendearen erreakzioa. Eta exagerazio bat da esango dudana, baina diskurtsoarekin jendea erdi hipnotizatuta daukadala ikusten badut, lasai nago. Konturatzen zara: “Ni gustura nago? Bai. Besteak adi-adi daude? Bai. Seguru asko, ondo gabiltza”. Seguru asko diot; ziurtasunik gabe. Baina horixe da nire estiloa. Eta itzulpenekin berdin.

DEL OLMO: “Auzo-lana itzulpengintzan ere” esaten badizut, zer erantzungo didazu?

ETXEBARRIA: Nik beti taldean lan egin dut, denetan. Badakizu zein den orain nire obsesioa, Ingeniaritza Eskolara etorri naitzenetik? Hara. Esperientziak erakutsi dit euskara teknikoaren garapenerako komunitate batzuk sortu behar direla. Kezka eta estilo hori konpartitzen duten pertsona batzuk bildu behar dira, adostasun batean

dabiltzanak. Komunitate bat egin behar da. Komunitate horretan, komunikazioa errazerraz gauzatzen da, kode eta klabe adostu batzuen arabera. Momentu honetan, eskolako irakasleentzako tailer bat ematen ari naiz, eurek problemak dauzkatelako euskarazko testu teknikoekin. Hau dena guztiz teknikoa da, ingeniartzakoa da. Bada, nik planteatu dudana proiektua, eta ez da nirea bakarrik, proiektua kolektiboa baita, gure departamentuaren proiektu bat; zeren beste irakasle batzuk ere badabilta beste fakultate batzuetan gauza bera egiten. Bada, kontua da eskola honetan komunitate zientifiko euskalduna finkatzea. Hori da nire kezka. Auzo-lana zentzu horretan. Hizkuntza zerbait kolektiboa da. Nik zertarako nahi dut euskara perfektu eta dotorea egin, niretzat baino ez bada? Ez du balio. Nik behar dut euskara bizitzeko, komunitate euskaldun batekin komunikatzeko; eta euskarak hiztunak behar gaitu, bizirik egoteko; badago sinbiosi moduko bat, batak bestea behar du: euskarak hiztuna, hiztunak euskara. Orduan, nola landuko dut niri gustatzen zaidan gaia –alegia zientzian, teknikan eta teknologian, euskaraz dotore eta egoki hitz egitea eta idaztea–, baldin eta ez badago kolektibitate bat ideia hori nirekin konpartitzen duena? Esadazu! Orduan, erabilera esan dizut delagakoa, baina erabilera pertsonena da, eta pertsonak dira bat, bi, hiru, lau... horregatik kolektibitateak sortu behar dira, erabilera konpartitzen dutenak. Gaur egunean, badago euskal komunitate zientifiko bat; txikitxo, baina badago; eta testu zientifikoak ere bai; badago Elhuyar; eta hori guztia konpartitzen dugu. Eskuetan dudana lan hau kolektibo bat da, ikaragarri ederra, ez dakit ezagu-

tzen duzun: *Zientzia eta teknologiako hiztegi entziklopedikoa*; Elhuyarrek egin duen lan ikaragarria. Eta begiratzen baduzu sarreran, hementxe daude parte-hartzaileak. Begira zer zerrenda: 200 pertsona. Berrehun pertsonak konpartitzen dute hizkera-klase hau. Hori oso gauza inportantea da; orduan, nik orain daukadan proiektua da eskolan finkatzea komunitate zientifiko bat. Zertarako? Hemengo ingeniariak konpartitzeko terminologia, esamoldeak, fraseologia, esateko moduak eta hitz egiteko ohitura; horretan nabil, momentu honetan hori da nire kezka. Nik uste dut euskarak badituela erremintak; baina komunitate bat behar du bizitzeko. Orduan, gauza kolektiboa da. Hizkuntza ez da nirea; nirea ere bai, baina komunitate batena, elkarte batena, batasun batena, erki-dego batena. Jendea behar da horrela hitz egiten duena. Hori badago, hizkuntza sano dago, osasuntsu, eta hori ez badago, ez dago ezer. Kontseiluak hainbeste erreflexio egin zituen euskararen unibertsoaren inguruan irlatxo batzuk garelako, artxipelago modukoak, eta guk kontinente bat nahi dugula. Harremana behar da; harremanik ez badago, ez dago ezer; harremana funtsezkoa da hizkuntza batentzat.

DEL OLMO: Hortik jarraituta, zuk egingadako moduko itzulpenak landu behar dituenari, zer aholkatuko zenioke?

ETXEBARRIA: Beti erantzuten dut berdin: bi gauza ondo ikasteko. Euskara lantzeko ondo eta zientzia lantzeko ondo; besterik ez. Eta hori erantzun nion orain dela urte pila bat Suárez Espainiako presidenteari. Hark esaten zuen euskaraz ezin zela fisikan eta kimikan ibili. Eta nik esan nuen: “horretarako

bi gauza baino ez dira behar”. Ekibokatu nintzen, ez ziren bi, hiru behar dira. Behar zen euskara ondo jakin: euskara landu egin behar da, eta ez bakarrik teknikan, irakurri egin behar da asko; irakurriz, asko ikasten da. Denetarikoak irakurri: iritzi-artikuluak, literatura, denetarik irakurri; ez kantitatea, kalitatea baino. Eta buruz irakurri behar da, adi-adi, fijatuz zer irakurtzen duzun. Ez da kantitate kontua; ulertzea da kontua, ikustea zer den ondo, bereiztea zer den testu ona eta zer den testu eskasa; hori ikasi egin behar da. Beraz, batetik, euskara ondo. Bestetik, egiten duzuna egiten duzula, gaia, kontzeptua ondo landu. Zientzia bada, zientzia; teknika bada, teknika; filosofia bada, filosofia. Ikasi ondo gaia. Bi horiek dira funtsezkoak egin ahal izateko testu ona, berdin dio itzulpena edo sorkuntza. Eta hirugarren bat behar da: praktika. Erabakitzea ikasitakoa erabiliko duzula: erabilera; hori da funtsezkoa. Nik beste kontseilurik ez. Euskara ikasi eta gaia ikasi; bestela ezin da itzuli. Ez badakizu zertaz ari zaren, nola kontxo itzuliko duzu?

DEL OLMO: Esana duzu, beste gai baten gainean, giltza beti dela beldurra.

ETXEBARRIA: Bai.

DEL OLMO: Itzultzeko orduan ere bai?

ETXEBARRIA: Bai. Beldurra da gainditu beharrekoa. Beldurra da kanpotik jartzen zaigun gauza bat, egoera bat. Eta bi aukera daukazu haren aurrean: zuk barneratu beldurra, eta orduan beldur horrek blokeatu egiten zaitu denetarako; eta zuk beldurrari aurre egitea eta gainditzea; zure neurrian, noski. Hori da klabea, denetan. Nik bel-

durra daukat; erantzukizun handia da. Niri eman zidatenean, esate baterako, Einsteinen liburua, hartu originala eta: “jo, gai izango ote zara, Jose Ramon, hau itzultzeko txukun?”. Antsietate-puntu bat sortzen zaizu; eta esaten duzu “ez naiz gai izango”. Baina, beti, soluzioa da aurre egitea beldur horri; saiatzea, behinik behin. Orduan, antsietate hori superatzeko modu bakarra da erabakitzea egingo dudala, eta bidea topatzea. Bidea ez duzu, igual, derrepente topatuko, baina, konfiantza edukita, saiatuz gero, bideren bat topatuko duzu. Nik hizkuntzekin hori planteatzen dut beti. Esaten dut: beste hizkuntzetan esan bada, guk zergatik ez dugu esango? Asmatuko dugu bidea. Igual lehenengoan ez dugu asmatzen. Orduan, beldur hori badago; baina hori hasiera-hasieratik. Nire lehenengo galdera euskara zientifikoaren arloan zerbait jakiteko, osatzeko, sinplea izan zen. Anekdotak bat kontatzen dut beti horren inguruan. Antzinako lagun batek, ingeniaria zenak galdetu zidanean euskaraz nola esaten zen gauza bat, nik lehenengo erantzun nion: “Ez, hori ez da esaten euskaraz”. Baina ez nintzen gustura geratu. “Ez da esaten” esan nion; baina zergatik ez da esaten? “Esan beharko da, ba” pentsatu nuen. Nire ustez, erantzun zuzena horixe da: esan behar bada, esan egingo dut. Zelan? Ez dakit, baina esango dut; bidea egingo dut horretarako. Eta nik ikusi dut euskara teknikoaren eboluzioa; eta, hasieran, nahiko baldar ibili ginen gauza batzuk egiten, baina gero eta finago egiten hasi gara. Joan gara ikasten; eta, bilaka-bilaka, topatu ditugu soluzioak. Aldez aurretik ez dakizu zein den soluzioa. Problema bat daukazu, arazo bat. Soluzioa daukan ez dakizu. Baina zuk

postulatzen duzu badaukala soluzioa; eta ez zaude itxaroten beste batek soluzioa emateko; zu hasten zara bila, eta hor dago beldurra. Beldurra da: “jo, eta topatzen ez badut, denbora galduko dut... Beno, bada, berdin da, saiaturko naiz”. Aurre egin behar zaio beldurrari, bidean bilatzeko soluzioa. Eta hori denetan, gizartean ere bai. Askotan esaten digute, politika-egoera Euskal Herrian oso txarra da, eta nik esaten dut: “Beno, bizirik gaude, eta bizirik bagaude segituko dugu”. Esaten didate: “Eta zein da soluzioa?”. “Nik ez dakit, baina, nahi baduzu, joango gara topatzen; bilaka joango gara”. Eta ahalegin hori da klabea beldurra gainditzeko eta topatzeko, gainera. Soluziorik ez badago, ez da ezer pasatzen, baina jada ez da zure errua. Asuntua da: zuk ezin duzu jakin alde zuretik; ezin duzu, baina arriskatu egin behar duzu. Baina hori denetan.

DEL OLMO: Peter Newmark teorialariak dioenez, testu zientifikoak eta teknikoak itzultzen direnean ere inportanteena gramatika da. Berak dio testurik teknikoenean ere terminologia % 20-30 dela, gehienik jota, eta gainerakoa, fraseologia. Eta terminoa ezin dela bortxatu, ezin dela behartu, baina gramatikarekin jokatu daitekeela. Zure esperientziaren arabera, zuk ere horrela ikusi duzu?

ETXEBARRIA: Bai, eta hori da nire kezka. Aurreko astean Leioan aurkeztu dudana komunikazio bat, terminologia-jardunaldiaren, matematika eta fisikako fraseologiari buruzkoa izan da. Hitzak arropa bezalakoak dira: arropa aldatu egin daiteke. Ni gaur klasera etortzen naiz jertse horrekin, jertsea kentzen dut eta beste bat ipintzen dut, eta

ez da ezer pasatzen. Orduan, hitzak arazoak dira, bai, baina hitzek soluzioa daukate, erraz. Baina adierazpide osoak, diskurtso osoa, komunikaziorako beharrezkoa den hori, horixe da funtsezkoa. Orduan, nire kezka nagusienetako bat da ez bakarrik hitza, baizik eta esamolde osoa, fraseologia.

DEL OLMO: Euskaraturik ez dauden gazetarik edo, euskaratuta egonez gero, oso gustukoa ez baduzu egindako itzulpena, zer itzuliko zenuke oraintxe bertan, baliabide guztiak eskura edukita?

ETXEBARRIA: Nik, orain, momentu honetan, burua beste gauza batzuetan daukat. Momentu honetan, ez daukat proiektu bat itzultzeko. Zergatik? Ari naizelako orain arteko erabilerari buruzko erreflexioa egiten. Momentu honetan ari naiz euskara tekniko-zientifikoan erabili izan ditugun esamoldeak estandarizatzen. Beraz, jada egindako lanaren inguruko hausnarketa egiten ari naiz. Eta horretan nagoenez buru-belarri sartuta, ez daukat denborarik bestean pentsatzeko. Hori da egia. Beraz, momentu honetan, ez nago kezkatuta itzulpenarekin, itzulpen konkretu batekin. Eta aitortzen dut beharrezkoak direla. Baina beste gauzak ere beharrezkoak dira. Orduan, gu mugaturik gaude, nik neure indarrak dauzkat oso mugaturik, eta momentu honetan zentratu-rik nago gauza konkretu batzuetan. Beraz, ez daukat asmorik ezer itzultzeko. Horrek ez du esan nahi...

DEL OLMO: Ametsen bat?

ETXEBARRIA: Ametsik ez daukat. Ez daukat denborarik ere edukitzeko. Nik lo egiten dut

oso ondo, baina normalean ez naiz gogorazten ametsetaz. Ni ia egunero iratzargailuak iratzartzen nau; seko egoten naiz, eta sentsazio ona daukat, deskantsuarena.

DEL OLMO: *Eta euskaratu nahi zenukeen libururen bat? Einsteinenarekin egin duzun moduan...*

ETXEBARRIA: Estilo horretako zer edo zer bai, egingo nuke, baina zer? Ez dut pentsatu. Momentu honetan ez daukat burua horretan. Baina, orain eskuen artean dauzkadanak kenduta, eta igual jubilatzen naitzenean, baten batek ideia on bat emango balit, nire gustuko gauza bat, egingo nuke, dudarik gabe. Niretzat, Einsteinen lanak

itzultzea ez da lana izan, izan da beste gauza bat. Lana izan da, noski, orduak sartu ditut, jakin nahi nuke zenbat, sartu ditut behar zirenak, baina disfrutatuta. Nik nahi nuke, egitekotan, disfrutatzekeo zer edo zer. Zergatik? Zeren, hori egiten badut, seguru ondo egingo dudala, ez naiz amargatuko. Ez dut amargaturik egon nahi; eta badakit itzultzen disfrutatu egin daitekeela. Nik disfrutatu dut, orduan esperientzia hori oso ona da. Idazten ere bai; iritzi-artikulu bat edo idatzi dudanean, askotan geratu naiz gustura. Kostatu egin zait egitea, baina gustura geratu naiz. Hori sentsazio oso ona da, dudarik gabe, errepikatzeko prest nagoena. Baina momentu honetan ez daukat buruan ezer.

Jose Ramon Etxebarria, científico y traductor

J.R. Etxebarria posee una dilatada trayectoria en la enseñanza, en la cultura vasca, en la política, en la investigación científica y en otros campos, siempre con el euskera como eje articulador de su actividad. Es muy conocida, por ejemplo, la polémica que mantuvo con cierto político sobre la supuesta incapacidad del euskera para poder expresar adecuadamente contenidos científicos de primera línea, opinión que refutó sobradamente con la presentación de su tesis de doctorado. En esta entrevista, sin embargo, se realiza un repaso a su itinerario como traductor y corrector, áreas sobre las que pone de manifiesto la visión, experiencias y acercamiento de un científico a unas labores que se han venido relacionando tradicionalmente con las letras.

J. R. Etxebarria, scientist and translator

J.R. Etxebarria has had a long career in teaching, in Basque culture, in politics, in scientific research and in other fields, but his activity has always revolved around the hub of Basque. For example, we have the well-known controversy that arose when a certain politician cast doubt on the so-called inability of Basque to expressing cutting-edge science content adequately; Etxebarria stoutly disproved this opinion by presenting his PhD thesis in Basque. But in the course of this interview he reviews his career as translator and corrector, areas in which he clearly expresses the vision, experiences and reconciliation of a scientist to tasks that have traditionally been linked to the world of arts.

J. R. Etxeberria, homme de science et traducteur

J.R. Etxebarria a suivi une longue trajectoire dans les domaines de l'enseignement, de la culture basque, de la politique, de la recherche scientifique et dans d'autres champs, ayant fait de l'euskara l'axe d'articulation de toute son activité. On se souvient, par exemple, de la polémique qu'il entretint avec un certain homme politique sur la soi-disante incapacité de l'euskara pour exprimer adéquatement des concepts scientifiques de haut niveau, opinion qu'il refuta largement avec la soutenance de sa thèse de doctorat. Dans cette entrevue, il retrace néanmoins son itinéraire en tant que traducteur et correcteur, disciplines où il souligne la vision, les expériences et le rapprochement d'un scientifique à des tâches traditionnellement liées au monde des lettres.